

Landare estresatuek soinu adierazten dute beren egoera

Ikerketa batean frogatu dute tomate- eta tabako-landare estresatuek igortzen duten soinua aire bidez hedatzen dela eta metro batera ere detekta daitekeela. Pertsonak ez dira gai soinu horiek entzuteko, baina, ikertzaileen esanean, oso litekeena da beste ugaztun batzuek eta intsektuek entzutea, eta, seguru asko, baita beste landare batzuek ere.

Esperimentuan, landare osasuntsuak eta estresatuak grabatu zituzten. Bi stres-mota eragin zizkieten: batzuk ez zituzten ureztatu, eta beste batzuei zurtoinak moztu zizkieten. Gero, grabaketak alderatu zituzten ikasketa automatikoko algoritmo baten bidez. Horrela ikusi zuten landare osasuntsuak oso isilik direla. Aldiz, ur-gabezia zutenak klik batzuk igortzen hasi ziren, eta 5. egunean iritsi ziren seinale akustikoen maximora. Handik aurrera, pixkanaka, gero eta isilago egon ziren, guztiz lehortzean isilik geratu arte.



Tabako-landaketa bat.
ARG.: Bishnu Sarangi/Pixabay.

Algoritmoa gai da landare lehorrek igorritako soinua eta zurtoinak moztutakoena bereizteko, baita landarea tomatea ala tabakoa den jakiteko ere. Oraindik ez dakite zehatz nola sortzen dituzten soinuak. Uste dute litekeena dela landareen hodi-sisteman sortzen diren burbuilen bidez sortzea. ●

Malariaren txertoak nabarmen gutxitu ditu haurren ospitaleratzeak eta heriotzak



Malariaren kontrako txertaketa emaitza onak ematen ari da.
ARG.: Pete Lewis/Department for International Development.

Osasunaren Mundu Erakundeak iragarri duenez, malariaren kontrako STS, S txertoarekin egindako fase pilotua emaitza itxaropentsuak izaten ari da. 2019an hasi zen fase hori, eta dagoeneko 1,2 milioi haur baino gehiago daude immunizatuta Kenyan, Malawin eta Ghanan. Eta frogatu dute nabarmen gutxitu direla infekzio larriak eta heriotzak malariak gogorren jotzen zuen eremuetan.

Adibidez, kalkulatu dute Homa badian (Kenyan, Victoria aintziraren ertzean) malariaren prebalentzia % 19-27 jaitsi dela haurretan. Emaitza horiek ikusita, txertaketa beste eremu batzuetara zabaltzea erabaki dute, eta dei egin diete gurasoei haurrak immunizatzeko behar dituzten lau dosiak hartzea eraman ditzaten. ●



[Albiste gehiago,](#)
[webgunean](#)